

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 5272

*HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2022ko ekainaren 14koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia egiten duena 2022-2023 ikasturterako.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua ezartzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak hala eskatuta, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

Aipatutakoen moduko hutsak atzeman dira 2022ko uztailaren 15eko 137. zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 14ko Aginduan (Agindua, 2022ko ekainaren 14koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia egiten duena 2022-2023 ikasturterako). Beraz, honela zuzenduko dira:

I. eranskineko 22.3 artikuluan, honako hau dioen lekuan:

«3.– Hauek izango dira a), b) eta c) letretan aipatutako ikasleentzako laguntza eta sorospenen osagaiak eta zenbatekoak:

Osagaia	Zenbatekoa (eurotan)
Irakaskuntza-laguntza	Gehienez 862
Eskola-garraiorako laguntza edo sorospena	Gehienez 574
Eskola-jantokirako sorospena	Gehienez 617
Zereginak ikasteko ikasleentzako ikasmaterialerako laguntza	Gehienez 204
Pedagogia-berreziketarako laguntza	Gehienez 913
Hizkuntza-berreziketarako laguntza	Gehienez 913»

Hau esan behar du:

«3.– Hauek izango dira a), b) eta c) letretan aipatutako ikasleentzako laguntza eta sorospenen osagaiak eta zenbatekoak:

Osagaia	Zenbatekoa (eurotan)
Irakaskuntza-laguntza	Gehienez 862
Eskola-garraiorako laguntza edo sorospena	Gehienez 617
Eskola-jantokirako sorospena	Gehienez 574
Zereginak ikasteko ikasleentzako ikasmaterialerako laguntza	Gehienez 204
Pedagogia-berreziketarako laguntza	Gehienez 913
Hizkuntza-berreziketarako laguntza	Gehienez 913»